

## BESTELAKO XEDAPENAK

### ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 1208

*EBAZPENA, 2019ko otsailaren 28koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita zenbait diru-baliabide esleitzen dituen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia. Diru-baliabide horien bidez, hain zuzen ere, 2019ko ekitaldian finantzatuko dira Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren IV. kapituluan ezarritako laguntzak.*

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2019ko otsailaren 27ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, zenbait diru-baliabide esleitu ditu, zehazki, Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren IV. kapituluan ezarritako laguntzak 2019an finantzatzera bideratuko direnak. Lanbideren Estatutueta 10.2 artikulua p) atalean xedatutakoarekin bat etorriz, Lanbideko zuzendari nagusiak eman behar du argitara erabaki hori. Lanbideren Estatutuak maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartu ziren.

Horregatik guztiagatik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2019ko otsailaren 27ko bilkuran hartutako erabakia, zeinaren bidez zenbait diru-baliabide esleitzen baitira ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren IV. kapituluan ezarritako laguntzak 2019ko ekitaldian finantzatzeko (177/2010 Dekretua, Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa). Ebazpen honen eranskinean jasota dago erabaki horren testua.

Bigarrena.– Jakinaraztea argitara ematen den Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzukoaren Erabakiak ondorioak izango dituela ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiaren aurka, zeinaren bidez deialdia onartzen baita, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 28a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,  
JUAN JOSE BORJA BELANDIA FRADEJAS.

## ERANSKINA

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN ERABAKIA,  
ZEINAREN BIDEZ ZENBAIT DIRU-BALIABIDE ESLEITZEN BAITIRA EKAINAREN 29KO  
177/2010 DEKRETUAREN IV. KAPITULUAN EZARRITAKO LAGUNTZAK 2019KO EKITALDIAN  
FINANTZATZEKO (177/2010 DEKRETUA, FAMILIA ETA LANA BATERAGARRI EGITEKO  
LAGUNTZEI BURUZKOA)

Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren IV. kapituluaren xedea da langabezian inskribatuta dauden pertsonen kontratazioa sustatzeko laguntzak arautzea, hain zuzen ere pertsona horiek besteren konturako langileak, kooperatiba-sozietateetako bazkide-langileak edo lan-bazkideak ordezkatu ditzaten. Horretarako, langileok egoera hauetakoren batean egon behar dute: seme-alabak edo mendetasun-egoeran edo oso osasun egoera larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartuta.

Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 53. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, urtero jakinaraziko da zein den dekretu horretan ezarritako laguntza-lerroa finantzatzeko esleitutako kredituen zenbateko osoa, edo, hala behar izanez gero, zein den zenbateko hori gehitzearen ondorioz sortutako zenbatekoa, betiere publikotasun-printzipioa betetze aldera.

Bestalde, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren mendeko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua izeneko erakunde autonomoa da eskudun, gaur egun, enplegu-programak kudeatzeko, enpleguaren inguruko heziketarako, eta Euskal Autonomia Erkidegoan enpresak sortzeko eta autoenplegua sustatzeko, kasurako indarrean dagoen urriaren 13ko 3/2011 Legean ezarri bezala. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, 2011ko urtarrilaren 1ean martxan jarri zenetik, bere gain hartu du laneko legedia betearazteko arloan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak kudeatzeko ardura, lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan; eta bere gain hartu du, halaber, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak eta, bereziki, Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzak enplegu-politika aktiboaren arloan betetzen zituzten eginkizunen kudeaketa. Eginkizun horien artean dago 177/2010 Dekretuaren IV. kapituluaren ezarritako laguntza-programaren kudeaketa.

Kudeaketa-organoa aldatu denez gero, eta publikotasun-printzipioa eta segurtasun juridikoarena betetze aldera, komeni da laguntzen onuradun izan daitezkeen entitateei jakinaraztea dirulaguntzak kudeatzeko prozedurako zenbait alderdi aldatu egin direla eta ez datozela bat 177/2010 Dekretuaren ezarritakoarekin.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2019ko otsailaren 27ko bilkuran gaia eztabaidatu ondoren, honako erabaki hau hartu du:

## ERABAKIA

Lehenengoa.– 1.700.000 euro esleituko dira Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren IV. kapituluaren ezarritako laguntzak 2019ko ekitaldian finantzatzeko. Esleipen hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoari dagokion 41. sekzioko 3211-Enplegua programaren kontura egingo da.

Zenbateko hori handitu daiteke baldin eta aurrekontuetan aldaketarik onartzen bada indarreko legeriaren arabera. Aldaketa horiek eginez gero, horren berri jakinaraziko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez.

Bigarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren laguntzen kudeaketari dagokionez, honako hauek jakinaraztea:

– Erabaki honetan aipatzen diren dirulaguntzak jasotzeko eskabideak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira (l. eranskina), eta honako toki hauetan izango dira eskuragarri: <http://www.lanbide.euskadi.eus> web-orrian, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zerbitzu zentraletan (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lurralde-bulegoetan, eta Zuzenean zerbitzuak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan dituen bulegoetan.

Horrez gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan xedatutako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Laneratzea Aktibatze Zuzendaritzak hartuko du bere gain eskabideak kudeatzeko eta izapidetzeko ardura, eta Lanbide erakunde autonomoko zuzendari nagusiak izango du ebazteko eskumena.

– Ebazteko epea, gehienez, sei hilabetekoa izango da, dirulaguntza-eskaera aurkezten den egunetik aurrera, eta epe hori igarotakoan interesdunari ebazpenik jakinarazi ez bazaio, eskaera administrazio-isiltasunaren bidez baietsi dela ulertuko da.

– Zuzendari nagusiaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari agintzea erabaki hau argitara eman dezala Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.



ESKAERA		
12	<b>LANA ETA FAMILIA BATERAGARRI EGITEKO NEURRIAK</b>	Urtea: <b>2019</b>
	ENPRESENTZAKO DIRULAGUNTZAK	

ESKATZAILEA .....

SARRERA-ERREGISTROA

LURRALDE HISTORIKOA

ARABA	01	
GIPUZKOA	20	
BIZKAIA	48	

ESPEDIENTE-ZENBAKIA

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--





## ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

- Hiru hilabete, sei hilabete aldia edo kontratua amaitzen den egunetik aurrera.

**KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:**

- ✓ 2 eta 6 hilabete bitarteko iraupena duten ordezkapenarako, eskaerak aurkezteko hiru hilabeteko epea izango da, kontratua amaitzen den egunetik hasita.
- ✓ 6 hilabetetik gorako iraupen jarraitua duten ordezkapenen kasuan, eskaera bat aurkeztuko da kontratua indarrean dagoen sei hilabeteko aldi bakoitzeko, hiru hilabeteko epean, kontratu bakoitza amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.
- ✓ Azken ordezkapen-aldiak 6 hilabete baino gutxiago irauten badu, eskaera aurkezteko epea hiru hilabetekoa izango da, kontratua amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.
- ✓ 6 hilabetetik gorako kontratua lehenago amaitzen bada, dirulaguntzaren eskaera hiru hilabeteko epean aurkeztuko da, kontratua amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

## AURKEZTEKO LEKUA

- LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ZERBITZU ZENTRALAK** (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz) edo honako leku hauek:

- ARABAKO LURRALDE-BULEGOA**  
Antilletako pasabidea 14, behea  
  
VITORIA-GASTEIZ

- BIZKAIKO LURRALDE-BULEGOA**  
Ercilla kalea 4  
(Behin-behinean, Kristo kalea 1, 4. eta 5.  
solairuak).  
BILBAO

- GIPUZKOAKO LURRALDE-BULEGOA**  
San Martzial kalea, 12  
  
DONOSTIA

- TOKIKO ENPLEGU-BULEGOAK**

- ZUZENEAN BULEGOAK – HERRITARRENTZAKO ARRETA**

Horrez gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan xedatutako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

## DATUEN BABESA

<b>Tratamendu-jarduerak</b>	Enplegurako eta enplegu-prestakuntzarako dirulaguntzak.
<b>Arduraduna</b>	Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzua
<b>Xedea</b>	Lanbideren eskumen diren enpleguko politika aktiboekin eta prestakuntzarekin lotutako dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea.
<b>Legitimazioa</b>	Tratamenduaren arduradunari emandako ahalmen publikoak baliatzea.
<b>Datu-lagapenen hartzaileak</b>	Gai horretan eskumenak dituzten administrazio publikoei laga ahalko zaizkie datu pertsonalak.
<b>Eskubideak</b>	Interesdunek beren datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskubidea dute, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo hari aurka egiteko ere –informazio gehigarrian azaltzen da nola erabili eskubideak.
<b>Informazio gehigarria</b>	Datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza kontsulta dezakezu gure webguneko <a href="http://www.lanbide.euskadi.eus">http://www.lanbide.euskadi.eus</a> Pribatutasun Politika izeneko atalean.

Beti ere honako xedapen hauetan ezarritakoa betetzeko:

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO) <https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf>
- Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (<https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf>)

2019ko martxoaren 6a, asteazkena



ESZEDENTZIAN DAUDEN EDO SEME-ALABAK EDO SENITARTEKOREN BAT ZAINTEKO LANALDI MURRITZUA DUTEN PERTSONEN ORDEZKAPENAK KONTRATAZEKO LAGUNTZA-ESKABIDEA.

## 1.– ESKATZAILEAREN DATUAK

Identifikazio fiskaleko zk.:		Sozietatearen izena	
Jakinarazpenetarako helbidea.			
Kalea		Zenbakia	Solairua
P.K.		Herria	Probintzia
Egoitza soziala			
Kalea		Zenbakia	Solairua
P.K.		Herria	Probintzia
Harremanetarako pertsona.		Telefonoa	Helbide elektronikoa
EJSN	Jarduera	Langile-kopurua	
Forma juridikoa	Jarduera-arloa:		
Sozietate Anonimoa	Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	A	
Kooperatiba-sozietatea	Erauzketa-industriak	B	
Lan-sozietate anonimoak	Manufaktura-industria	C	
Ondasun-erkidegoa	Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornikuntza	D	
Lan-sozietate mugatua	Ur-hornikuntza, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	E	
Enpresaburu banakoa	Eraikuntza	F	
Sozietate zibila	Txikizkako eta handizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa	G	
Eraldaketa- nekazaritza-sozietatea	Garraioa eta biltegiak	H	
Irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatuak	Ostalaritza	I	
Lan-sozietate mugatua	Informazioa eta komunikazioak	J	
Administrazioa	Finantza- eta aseguru-jarduerak	K	
Ugazaba- edo sindikatu-erakundea	Higiezinekin lotutako jarduerak	L	
Irabazi-asmorik gabeko bestelako enpresak	Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	M	
Beste batzuk	Administrazio-jarduerak eta zerbitzu laguntzaileak	N	
	Administrazio publikoa eta defentsa; nahitaezko gizarte-segurantzaren jarduerak	O	
	Hezkuntza	P	
	Osasuneko eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak	Q	
	Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak	R	
	Bestelako zerbitzuak.	S	
	Etxe langileak hartzen dituzten etxeetako jarduerak; etxeetako jarduerak, norberak erabiltzeko ondasunen edo zerbitzuen ekoizle gisa.	T	
	Lurraldetik kanpoko erakundeen eta organismoen jarduerak	U	

Markatu dagokiona (X) jarrita

Markatu dagokiona (X) jarrita

3/10

2019ko martxoaren 6a, asteazkena



## 2.- ORDEZKATUTAKO PERTSONAREN DATUAK

NAN										Izena										Abizenak																													
/ /										Adina										Sexua																													
/ /										Emakumezkoa										Gizonezkoa										Eszedentzia										Lanaldi-murrizketa									

Markatu dagokiona (X) jarrita

Jarduketaren hasiera										Jarduketaren amaiera										Lanaldi arrunta										Lanaldi-murrizketaren kasuan soilik																																							
/ /										/ /										Osoa										% 100																																							
/ /										/ /										Partziala										Murrizketaren portzentajea																																							
Lantokiaren helbidea										Kalea										Zenbakia										P.K.										Herria																													
Titulazio-maila										Alfabetatu gabe										Lehen ikasketak amaitu gabe										OHO, titulurik gabe										OHO, DBH, IEE1										IG Erdi Mailakoa,																			
BBB, UBI, IEE2, Batxilergoa										IG Goi-mailakoa, LH2, Industri Maisutza										Unibertsitateko diplomatura										Unibertsitateko lizentzia										Graduko ikasketak										Masterra										Unibertsitateko doktoregoa									

Markatu dagokiona (X) jarrita

## 3.- ORDEZKATUTAKO LANGILEAREN SEME-ALABAREN DATUAK

Jaiotze-data										Izena										Abizenak										Ezindua																			
/ /										/ /										/ /										Ez										%									
/ /										/ /										/ /										Bai										%									

Markatu dagokiona (X) jarrita

## 4.- ORDEZKATUTAKO LANGILEAREKIKO MENDEKOTASUNA DUEN PERTSONAREN DATUAK

Jaiotze-data										Izena										Abizenak										Ezindua																			
/ /										/ /										/ /										Ez										%									
/ /										/ /										/ /										Bai										%									
Ahaidetasuna																																																	

Markatu dagokiona (X) jarrita

## 5.-DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUKETAK

A	Ordezkapena egiteko bitarteko lan-kontratua:										B	Ordezkapena egiteko lanaldia luzatzea:									
	Eszedentzia											Eszedentzia									
	Lanaldi-murrizketa											Lanaldi-murrizketa									

Markatu dagokiona (X) jarrita



## 6.– KONTRATATUTAKO PERTSONAREN DATUAK

NAN		Izena		Abizenak	
Jaiotze-data	Adina	Sexua	Langabea	Ezindua	Etorkina
____//____		Emakumezkoa	Hilabeteak	Ez	Ez
		Gizonezkoa	LANBIDEn izena emandakoa	Bai	Bai
Titulazio-maila					
Alfabetatu gabe	<input type="checkbox"/>	Lehen ikasketak amaitu gabe	<input type="checkbox"/>	OHO, titulurik gabe	<input type="checkbox"/>
				OHO, DBH, IEE1	<input type="checkbox"/>
				IG Erdi Mailakoa,	<input type="checkbox"/>
BBB, UBI, IEE2, Batxilergoa	<input type="checkbox"/>	IG Goi-mailakoa, LH2, Industri Maisutza	<input type="checkbox"/>	Unibertsitateko diplomatura	<input type="checkbox"/>
Unibertsitateko lizentzia	<input type="checkbox"/>	Graduko ikasketak	<input type="checkbox"/>	Unibertsitateko doktoregoa	<input type="checkbox"/>
		Masterra	<input type="checkbox"/>		

Markatu dagokiona (X) jarrita





## 7.– BITARTEKO LAN-KONTRATUAREN DATUAK

Kontratuaren hasiera	Kontratuaren amaiera	Iraupena		Adostutako lan-jardunaldia		
				Osoa	Portzentajea	% 100
____//____	____//____	Egun-kopurua		Partziala		
Lantokiaren helbidea						
Kalea		Zenbakia	P.K.		Herria	

Markatu dagokiona (X) jarrita

.....(e)n, .....(e)ko .....aren ..... (e)(a)n.

Kontratutako langilearen sinadura

Iz.: _____ (Alderazi ezazu sinatzailearen izena, inprenta-letraz)
---



## 8.– LEHEN SEIHILEKO EDO ALDI TXIKIAGOKO KONTINGENTZIA ARRUNTENGATIKO KOTIZAZIOA

**KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:**

- ✓ Ordezkapenak 6 hilabetetik gorako iraupen jarraitua badu, beheko laukia bete beharko da, eskatutako sei hilekoko datuekin.
- ✓ Honako kasu haueetan, betiere:
  - 59 egun eta 6 hilabete bitarteko iraupen jarraitua duten ordezkapenak.
  - ordezkapen-aldietako azkenak sei hilabete baino gutxiagoko iraupen jarraitua baldin badauka.
  - 6 hilabetetik gorako kontratua aldez aurretik iraungitzen bada,
 beheko laukia eskatutako aldiari dagokionez bakarrik beteko da.
- ✓ Eskaera bakar batean ez da inoiz diruz lagunduko segidako 6 hilabetetik gorako ordezkapenaldirik.

	Noiztik	Noiz arte	Lanaldiaren %:	Egun-kopurua	Kotizazio-oinarria	Kontingentzia Arruntengatikoa
1	___ // __	___ // __			(€)	(€)
2	___ // __	___ // __			(€)	(€)
3	___ // __	___ // __			(€)	(€)
4	___ // __	___ // __			(€)	(€)
5	___ // __	___ // __			(€)	(€)
6	___ // __	___ // __			(€)	(€)
7	___ // __	___ // __			(€)	(€)
Guztira					(€)	(€)



ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA				
Jaun/andre honek, ....., enpresa eskatzailearen izenean eta hura ordezkatzuz, hau ADIERAZTEN DU: (Markatu dagokiona X batez)				
Lehena				
Ez dago ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 30.5 artikuluan aipatzen den eragozpen-egoerarik (ahaidetasuna edo bazkide izatea).				<input type="checkbox"/>
Bigarrena				
a) Ez dut laguntzarik jasotzen xede eta helburu berarekin administrazio publikoen eskutik.				<input type="checkbox"/>
b) ..... euroko laguntza eman zait ..... (*)				<input type="checkbox"/>
c) .....(a)ri (*) eskatu diot laguntza, eta ebazpenaren zain nago.				<input type="checkbox"/>
Hirugarrena.				
Ez nago itzultzeko edo zehatzeko inongo prozeduraren eraginpean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzaren bat dela-eta.				<input type="checkbox"/>
Laugarrena				
Ez naiz administrazio-edo zigor-arloan zehatuta egon sexu-diskriminatzeagatik, eta ez naiz zehatuta egon Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraikiz euskal administrazio publikoen laguntza eta dirulaguntzen deialdietan parte hartzeko debekuekin.				<input type="checkbox"/>
Bosgarrena Betetzen dut azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 42. artikuluan eta lan-segurtasun eta -osasun arloko arauetan xedatutakoa, Prebentzio-zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuari eta lan arloko gainerako arauetara jarraikiz.				
Seigarrena				
Ez zait ezarri dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor-arloko edo administrazio-arloko zigorrik, eta ez nago hartarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean.				<input type="checkbox"/>
Zazpigarrena				
Ez nago Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurrez ikusitako egoeren eraginpean, diru-laguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.				<input type="checkbox"/>
Zortzigarrena				
Bermatzen da ordezkaturako pertsonaren lanpostua gordetzen dela -eszedentziaren kasuan- edo lanaldi arruntera itzultzea -lanaldi-murrizketaren kasuan; pertsona ordezkatuaren datuak eskabide honen 2. apartatuan jasota daude.				<input type="checkbox"/>
Bederatzigarrena				
Minimis araua betetzen den egiaztatzeko, ekainaren 29ko 177/20110 Dekretuaren 33.7.j) artikuluan xedatutakoa betetzeko xedez:				<input type="checkbox"/>
a) Ez dut jaso minimis araubideko laguntzarik dagokion ekitaldi fiskalean ez eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan ere. b) Dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bietan, minimis araubideko laguntza hauek eskatu edo jaso ditut, Europar Batasunaren funtzionamendua arautzen duen Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruz Batzordeak 2013ko abenduaren 18an egindako 1407/2013 (EE) Erregelamenduaren arabera.				
Eskatutako dirulaguntza-kopurua:				
Laguntzaren egoera (**)	Erakunde Laguntza-emailea (*)	Laguntzaren helburuaren deskribapena	Zenbatekoa (euro)	Eguna (eskatzekoa/ematekoa)

(\*) 1= Laguntza eskatu da    2= Laguntza eman da.



## Hamargarrena

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari baimena ematen diot zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen ditudala elektronikoki egiaztatzeko. (Horretarako baimenik ematen ez bada, zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela ziurtatzen duten agirien kopia erantsi beharko da).

.....(e)n, .....(e)ko .....aren .....(e)(a)n.

Iz.: \_\_\_\_\_  
(Adierazi ezazu sinatzailearen izena, inprenta-letraz)

(\* ) Laguntza ematen duen entitatea: udala, aldundia, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa, etab.



#### ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Hirugarren interesdunaren datuen altari buruzko fitxa (ordainketak banku bidez egiteko inprimaki normalizatua), entitate edo pertsona eskatzaileak sinatuta eta zigilatuta eta dagokion banketxeak sinatuta eta zigilatuta.
- Entitate edo pertsona eskatzailearen identifikazio fiskaleko txartelaren kopia.
- Dirulaguntza jaso behar duen kontratazioa oinarritu duen eszedentzia edo lanaldi-murrizketa egiaztatzen duen agiria, eskubide horietaz baliatu den pertsonari buruzko honako datuak jasotzen dituen:
  - Zenbat denbora egongo den aipatutako egoeran (hasiera- eta amaiera-eguna).
  - Une horretara arte egiten zuen lanaldia eta hori zein proportziokoa zen lanaldi osoaren aldean, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboaren arabera.
  - Lanaldi-murrizketaren kasuan, murrizketa zein ehunekoaren arabera den egin ohi zuen lanaldiarekin alderatuta.
  - Lanpostua gordetzeko edo ohiko lanaldira itzultzeko bermea.
- Besteren kontura lan egiten duten langileen ordezkapenaren kasuan, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzen duen langilea ordezkatzeko Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratutako kontratuaren kopia. Kooperatiba-elkarteen kasuan, langile-bazkidearen edo lan-bazkidearen iraupen mugatuko kontratuaren kopia.
- Lan Eskaeraren Alta eta Berritze Dokumentuaren kopia (LEABD-DARDE). Jarraian aipatzen diren kasuetan ez da agiri hori aurkeztu beharko:
  - Kontratututakoa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan eskatzaile gisa inskribatuta badago. Kasu horretan egoera hori eskaera-orrian adieraziko da.
  - 27.2 artikuluan aurreikusitako lanaldi-luzatzeen kasuan. Kasu horretan aurretik lanaldi partzialeko kontratazioa zegoela eta kontratua –ordezkapena egiteko helburuarekin– aldatu egin dela egiaztatu beharko da.
- RNT Langileen Zerrenda Nominala kotizazio-agiriaren kopia, non zehaztuko baita zein pertsona kontratatu den eskatutako aldian.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari ez bazaio baimenik ematen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen ditudala elektronikoki egiaztatzeko. Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren Lurralde Zuzendaritzaren –edo kooperatiba-sozietateen kasuan dagokion entitatearen– egiaztagiria eguneratuak –eskabidearen sarrera-datatik 3 hilabetera egindakoak gehienez–, laguntza eskatzen duen entitateak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta dituela egiaztatzen dutenak. Zor bat atzeratzea lortzen duen entitateak ordainketak eguneratuta dauzkala hartuko da, baina agirien bidez egiaztatu beharko du hori guztia.
- Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa betetzeko kontratatutako langilea baja izan bada enpresan, kontratua amaitu delako edo beste edozein arrazoi dela medio, baja-aitorpenari buruzko Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren ebazpena erantsi beharko da.
- Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa izateko eskubidea ematen duen pertsonaren ahaidetasuna egiaztatzen duen dokumentua, zeinaren falta bete nahi baita kontratazioarekin; kontuan hartu behar da eszedentzia-egoeran, hala badagokio, jaiotza berri batek eskubide berri bat sortarazten duela eta aurreko eskubidea iraungitzen.

#### JARRAIPEN-ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Web-orri honetan dagoen eskabidea behar bezala beteta eta kontratatutako pertsonak eta enpresaren ordezkariak sinatuta, eta enpresaren zigilua duela.
- RNT Langileen Zerrenda Nominala kotizazio-agiriaren kopia, non zehaztuko baita zein pertsona kontratatu den eskatutako aldian.
- Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren Lurralde Zuzendaritzaren –edo kooperatiba-sozietateen kasuan dagokion entitatearen– egiaztagiria eguneratuak –eskabidearen sarrera-datatik 3 hilabetera egindakoak gehienez–, laguntza eskatzen duen entitateak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta dituela egiaztatzen dutenak. Zor bat atzeratzea lortzen duen entitateak ordainketak eguneratuta dauzkala hartuko da, baina zerga-zorrari dagokionez agirien bidez egiaztatu beharko du hori guztia.
- Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa betetzeko kontratatutako langilea baja izan bada enpresan, kontratua amaitu delako edo beste edozein arrazoi dela medio, baja-aitorpenari buruzko Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren ebazpena erantsi beharko da.
- Hasieran aurkeztutako eskabideari dagokionez izandako edozein aldaketaren egiaztagiria (eszedentzia edo murrizketa, jakinarazpenetarako helbide-aldaketa, izen-aldaketa, kontu-zenbakiaren aldaketa, eta abar).

Eskabide hau ebazteko eta jakinarazteko, gehienez sei hileko epea izango da, erregistro-sarreraren datatik aurrera; epe hori amaitutakoan, dirulaguntzaren eskabidea onartutzat hartuko da baldin eta esanbidezko ebazpena ematen ez bada.